



ERREPRESIOA GELDI!

Aurore Martin-en berehalako askatasunaren alde

Euskal presoen eskubideen alde

SEGI BORROKA!

Duela urte bat Aieteko Bake Konferentzia

Konferentziaren ondorioen agiriak bi puntu nagusi zeuzkan.

Alde batetik, ETAK bere jarduera armatua behin betiko alde batera uztea deia luzatzea, bestalde Espainia eta Frantziako gobernuei »soilik gatazkaren ondorioez aritzeko elkarrizketa deia »onartzea. Lehen puntuak errespetatua izan baldin bada, urriaren 20an ETAK egindako adierazpenarekin, estatuek ez dute ez bata ez beste inolako urratsik eman elkarrizketa abiatzeko.

Alderantziz, errepresio bidea mantentzen dute, atxiloketak segituz eta presoek egoerak berdin gogor eta bortitz jarraitzen du.

Probokazio hutsa da heien gaitzak, gatazkaren konponbide prozesuaren hausteko entsegua.

HOLLANDE-AYRAULT-VALLS menturatu dira: Aurore Martin agintari espanolen esku utzi dute

Manuel Valls Barne Ministroak Rajoy-en gobernamentuaren ildotik dabil, edozoin urratseri uko eginez, ETAKen desagertze eza estakuru. Txarrago, azaroaren 1ean Aurore Martin agintari espanolen esku uzten du. Hollande-Valls-ek, azken bi urte hauetan Aurore mehatxatzen zuen euroagindua gauzatu dute beraz, Sarkozy-Gueant-ek berek bete ez zutelarik.

Berriz ere, euroagindua errepresio politikoaren zerbitzuko baliatua da.

Euroagindua eta salbuespen lege, neurrien indargabetzea gero eta gaur egungoa da.

Euskal Herrian handia da gaitzidura, protesta elgarretaratzeak ugari eta jendetsuak.

Alderdi guzietako hautetsiek frantses gobernamentua galdezkatzen dute eta Aurore berehala itzul dadin eskatzen.

Estradizio hau probokazio hutsa da, Pireneetako bi aldetan, 40 urteko gerlaren aterabidea eskumenean dela kontsideratzen duten guzien adierazpen askatasuna mehatxatu nahian.

Bortizkeria piztu, odola ixuri, gerla segitu nahi duten bi gobernamenturen ekintza higuigarria da. Manuel Valls su emaile bat dugu, Hollande arduragabeak gidaturik, azken honek, hautatua izan orduko hitza jaten duelarik. (2011ko uztailera erranak)

Presoen eskubideen alde! Amnistiaren alde!

Gaur egun 624 euskal militante dira preso, horietatik 137 frantses estatuan. 14 larriki eri dira. 169 baldintzazko askatasuna baliatzen ahal lukete

Euskal Herritik urrun sakabanatuak dira.

Elgar gaitzeen ostera preso guzien etxeratze eta askatasuna aldarrikatzeko

eta eskatzeko berehala:

- Presoen herriratzea
- Eri diren presoek askatzea, zigorraren 2/3ak bete dutenen askatzea
- Salbuespen neurrien desagertzea (sakabanatzea, bakartasun neurriak)
- Bizi osorako zigorrekin bukatzea
- Euskal iheslari politikoen jazapenarekin bukatzea

Haratago, preso eta iheslarien amnistia, autodeterminazioaren aldeko eskubidea, gatazkaren aterabiderako elementu nagusiak daude.

NPA Pays Basque

[*npa.paysbasque@gmail.com*](mailto:npa.paysbasque@gmail.com)